

Azpiegiturak, S.A.M.P.

Azpiegiturak, SAMP Azpiegituretarako eta Luralde Garapenerako Sailera atxikitako foru-sozietate publikoa da eta bere sozietate-xedean honako jarduketa hauek sartzen dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa-eremuarekin lotutako azpiegitura- eta ekipamendu-obrak proiektatu, eraiki, kontserbatu eta ustiatzea.
- Negozio-zentroak sortu eta kudeatzea, enpresa-instalazioak urbanizatu eta egokitzea, eta azpiegitura eta ekipamendu publikoak hornitzea enplegua sortzen duten jarduketak garatzeko.
- Lurzorua erosi eta haren sustapen publikoa egitea, interes publikoko jarduketa ekonomikoetarako, industria eta zerbitzuen sektoreetarako; eta enpresak bilatzea, sozietateak sustatuko jarduketetan kokatzeko.
- Lurzorua erosi eta sustatzea eta etxebizitzak egiteko erabiliko diren bizitegi-arloak urbanizatu eta kudeatzea, bai eta etxebizitzak eraikitzea ere, babes publikoko araubideren batean daudenei arreta berezia emanez.

Sozietatea 2010eko uztailaren 06an eratu zen, Azpiegitura, S.A.U., Bizkailur, S.A.U., Bideak Bizkaiko Bideak, S.A.U. Eta Kirolgintzan, S.A.U. foru-sozietate publikoek bat egin zutenean.

Azpiegiturak, SAMP sozietateak lau sozietate fusionatuen ondareak multzoan jaso zituen eta sozietateok beren akziodun bakarrarekin edo hirugarrenekin zituzten hitzarmen, ardura eta kontratuetan subrogatu da.

Sozietatearen jarduketa-arlo nagusiak honela defini daitezke, laburbilduta:

Azpiegiturak, S.A.M.P., es una Sociedad Pública Foral adscrita al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, cuyo objeto social contempla las siguientes actividades:

- Proyectar, construir, conservar y explotar las obras de infraestructuras y equipamientos relacionados con el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Crear y gestionar centros de negocio, urbanizar y adecuar instalaciones empresariales, dotación de infraestructuras y equipamientos públicos para el desarrollo de actividades generadoras de empleo.
- Adquirir y realizar la promoción pública de suelo para actividades económicas de interés público, para los sectores industrial y servicios, captación de empresas para su ubicación en las actuaciones promovidas por la sociedad.
- Adquirir y promocionar suelo, y urbanizar y gestionar áreas residenciales destinadas a viviendas, así como la promoción de viviendas, destacando las sometidas a algún régimen de protección pública.

La Sociedad fue constituida el 6 de julio de 2010 por fusión de las Sociedades Públicas Forales Azpiegitura, S.A.U., Bizkailur, S.A.U. Bideak Bizkaiko Bideak, S.A.U. y Kirolgintzan S.A.U.

Azpiegiturak, S.A.M.P. recibió los patrimonios en bloque de las cuatro Sociedades fusionadas, y se subrogó en cuantos convenios, encomiendas y contratos mantenían éstas con su accionista único o con terceros.

Las áreas principales de actividad de la sociedad pueden definirse de forma resumida de la siguiente manera:



Azpiegiturak, S.A.M.P.

- Enpresa-azpiegiturak kudeatzea, Bizkaiko lurraldean enpresen sorrera eta finkapena errazteko asmoz. Jarduketa hori bi jarduketamota nagusitan banatzen da:
 1. Pertsona ekintzaileentzako azpiegiturak sortzea.
 2. Industriaren sektorerako lurzorua erosi eta sustatzea, finkatutako enpresak bertan kokatzeko azpiegiturak hornitu ahal izateko.
- Pertsona nagusientzako edo ezintasun-mota desberdinak dituzten pertsona-taldeentzako gizarte-ekipamenduak eraiki eta ustiatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak aginduta.
- Foru-titulartasuneko kirol-azpiegiturak eraiki eta kudeatzea.
- Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Plana. Horren bidez, Bizkaiko lurralde historikoko herritarren eskura etxebizitzak prezio eskuragarrietan jartzen dira.
- Gestión de infraestructuras empresariales, con el objeto de facilitar el asentamiento y creación de empresas en el territorio de Bizkaia. Esta actividad se divide en dos tipos principales de actividad:
 1. Creación de infraestructuras para personas emprendedoras.
 2. Promoción y adquisición de suelo para el sector industrial, dirigido a dotar infraestructuras para el asentamiento de empresas ya consolidadas.
- Construcción y explotación de equipamientos sociales, destinados a personas mayores o a colectivos de personas con distintos tipos de discapacidades, y por encomiendas del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Construcción y gestión de infraestructuras deportivas de titularidad foral.
- Plan Foral de Actuación en vivienda, por lo que se promueve la puesta a disposición de la ciudadanía del Territorio Histórico de Bizkaia de vivienda a precios adecuados.

Jarduketa-ildo nagusiak

1. Enpresa-azpiegiturak kudeatzea.
 - 1.a) Ekintzaileentzako azpiegiturak.

Industria-azpiegiturak kudeatzea.

Jarduketa-arlo honetan pertsona ekintzaile, enpresa, zentro eta erakundeentzat pentsatutako azpiegiturak sortzen dira, baldin eta horiek Bizkaiaren garapen iraunkor eta orekatuan lagunduko duen enpresa-proiektua badaukate. Hori horrela, sozietate berrien sorrera babestuko da eta lehentasuna emango zaie kudeaketan eduki berritzaile altua (bai teknologia-aldetik, bai kudeaketa-sistemetan) dutenei. Ardatz horietan

Líneas generales de actuación

1. Gestión de infraestructuras empresariales
 - 1.a) Infraestructuras para emprendedores

Gestión de infraestructuras Industriales

Esta rama de la actividad se encarga de la creación de infraestructuras pensadas para personas emprendedoras, empresas, centros o entidades que tengan un proyecto empresarial que contribuya al desarrollo sostenible y equilibrado de Bizkaia, apoyando la creación de nuevas Sociedades, primando aquellas que en su gestión posean alto contenido innovador, tanto en lo tecnológico como en sus sistemas de gestión. Ejes estos, en los que, en



Azpiegiturak, S.A.M.P.

etsiko da Bizkaiko Lurralde Historikoko garapen ekonomikoa, geroz eta globalizatuagoa eta lehiakorragoa den mundu honetan.

Gainera, elkartegietan kokatutako espazioak ematen dizkie ekimen eta ideiekin beren lehen urratsak ematen dituzten sustatzaileei. Hori horrela, beren bideragarritasuna aztertzen da, beren proiektuak garatzen dira eta gure lurraldeko enpresa-sarea hedatuko duten enpresak sortzea helburu duen ekimenak garatu gabe gelditzea saihesten da.

Elkartegiak programa, 1985ean sortu zenetik, eratu berri diren enpresa-ekimenen eta lehendik zeudenen azpiegiturak diseinatu, eraiki eta mantentzeaz arduratu da. Horretarako, enpresok beren jatorrian iraun eta garatzeko bultzada eman du eta administrazio ezberdinekin aritu da lankidetzan, enpresak beren kabuz bilatzeko gai ez diren eskualdeei laguntza ematen dieten azpiegiturak aztertu eta kokatzeko orduan.

Azpiegiturak, SAMP sozietateak moduluak eskaintzen ditu Elkartegiak sarearen bidez. Sare honek erreferentea izan nahi du enpresa-sarean, bere jarduketa gure instalazioetan garatzen duen pertsona orori balio erantsia emanez. Horretarako, tamaina ezberdinetako moduluak eskaintzen dizkiegu industria eta zerbitzuetako enpresei, baldintza ekonomiko onenetan, Programaren Dekretu arautzailean ezarritako baldintzak betetzen dituzten enpresentzat. Gaur egun eraikin modernoak eta teknologikoki aurreratuak eraikitzen ditu, eta, horietan, bilera-aretoak, wifi, harrera-zerbitzuak, etab. jartzen ditu.

Elkartegien egungo okupazioa gutxi gorabehera %68 da industria-moduluetan eta %60 bulego-moduluetan.

un mundo cada vez más globalizado y competitivo, se sustente el desarrollo económico del Territorio Histórico de Bizkaia.

También facilita espacios ubicados en los elkartegis, a todo aquel promotor o promotora que con iniciativa e ideas, den sus primeros pasos, explorando la viabilidad y desarrollando su proyecto, tratando de conseguir que ninguna iniciativa, encaminada a la creación de empresas que amplíen el tejido empresarial de nuestro Territorio, quede sin desarrollar.

El programa Elkartegiak desde su creación en 1985, se ha dedicado al diseño, construcción y mantenimiento de infraestructuras, que albergan tanto a las iniciativas empresariales de nueva creación, como a las ya existentes consolidando de esta forma su permanencia y desarrollo en su lugar de origen, colaborando, además, con las distintas administraciones en el estudio y ubicación de infraestructuras que favorezcan aquellas comarcas que por sí mismas no sean ellas solas capaces de ser tractoras en la captación de empresas.

Azpiegiturak, S.A.M.P ofrece módulos a través de la Red Elkartegiak que pretende ser un referente en el tejido empresarial, constituyendo un valor añadido para toda aquella actividad que se desarrolle en nuestras instalaciones, para lo que ofrecemos módulos de diferentes tamaños a empresas, tanto industriales, como de servicios, en las mejores condiciones económicas, para las empresas que cumplen con los requisitos establecidos en el Decreto regulador del Programa. En la actualidad construye edificios modernos y avanzados tecnológicamente, con salas de reuniones, wifi, así como servicios de recepción, etc.

La ocupación actual en el conjunto de los elkartegis es aproximadamente de un 68% de los módulos industriales y un 60% de los módulos de oficinas.



Ekipamendu berrien arloan, Azpiegiturak sozietateak 2019ko lehen hiruhilekoan Gernika Elkartegia martxan jarri du, eskualdeko enpresa-ekimenak bere gain hartzen dituen azpiegitura-eskaintza handitzeko helburuarekin.

Jarduera horrek Busturialdea Elkartegiak sarean sartzeko bidea zabaltzen du, eta Startup ekimenak jasoko dituzten jardueretara zein trakzio gisa jokatu duten industria-egitasmo sendotara zuzenduta dago batez ere, baita ekintzailtza- eta gizarte-berrikuntzako proiektuetara ere.

Moduluz osatutako gune ezberdinak, enpresa arloko proiektu berriak garatzeko gunea, jardunaldi eta elkarguneetarako gela eta erakusketa gela ditu. Elkartegia hirian kokatuta dagoenez jarduerak ez dira gogaikarriak izango, ez eta kutsakorrak ere.

Bestalde, 2017an zehar sozietateak Santurtziko Udalaren eskutik 25 urteko demaniazko emakida jaso zuen "El Arbol" eraikinaren gainean, bertan 25 urtez berrikuntza esparruko enpresa gunea garatzeko, Elkartegiak egitasmoaren barruan. Beharrezkoak ziren egokitze-lanen ondoren, ekipamendu hori 2018ko azken hilean abiatu da, eta, ondorioz, 2019an Elkartegiak sarean guztiz integratu da.

2019an zehar, Energiaren eremuan TRL garaietan laguntzeko I+G+b Zentro bat (Energy Intelligence Center) eraikitzeko lehen urratsak egin dira Abanto Udalerrian. Aipatutako Zentroa Euskadiko energia alorreko enpresen lehiakortasuna sustatzeko zentroa da, adimen lehiakorrean, garapen teknologikoan, ezagutzaren sorkuntzan eta merkatu aurreragotuen sarbidean oinarrituta; hori guztia, lankidetzan, konpromiso publiko-pribatuan eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekosistemarekiko elkarlanean oinarrituta. Azpiegiturak sozietateak jarduketa hau gauzatzeko lanean parte hartzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren aginduz. Horren kostua 38.478.000

En cuanto a nuevos equipamientos, Azpiegiturak ha puesto en funcionamiento en el primer trimestre de 2019 Gernika Elkartegia, una actuación dirigida a ampliar la oferta de infraestructuras que permitan albergar iniciativas empresariales en la comarca.

Esta actuación, que permite incorporar la comarca de Busturialdea a la red Elkartegiak, se ha dirigido prioritariamente a actividades que aglutinen tanto iniciativas Startup como proyectos industriales consolidados que actúen como tractores, así como a proyectos de emprendimiento e innovación social.

Cuenta con espacios diferenciados que se componen de módulos, espacio para el desarrollo de nuevos proyectos empresariales, sala para jornadas y encuentros y sala de exposiciones. Dado el enclave eminentemente urbano del Elkartegi, las actividades desarrolladas no serán molestas ni contaminantes.

Por otra parte, durante 2017 la Sociedad recibió del Ayuntamiento de Santurtzi una concesión demanial por 25 años para el desarrollo de un espacio empresarial de innovación sobre el edificio "El Árbol" de dicha localidad, durante un periodo de 25 años, mediante la integración en el programa Elkartegiak. Tras las obras de adecuación, este equipamiento ha entrado en funcionamiento en el último mes de 2018, por lo que en 2019 se ha integrado ya plenamente en la red Elkartegiak.

Durante 2019 se han iniciado las primeras actuaciones para la construcción de un Centro de I+D+i colaborativa en TRLs altos en el ámbito de la Energía (Energy Intelligence Center) en el municipio de Abanto, que se conforma como un centro para el impulso de la competitividad de las empresas del sector de la energía de Euskadi basado en la Inteligencia competitiva, el desarrollo tecnológico, la generación de conocimiento y el acceso a los mercados más avanzados, todo ello apoyado en la cooperación, el compromiso público-privado y la colaboración con el ecosistema de Ciencia, Tecnología e Innovación de Euskadi. Azpiegiturak participa en la ejecución de esta



eurokoa izango da, BEZ barne, eta 2020 urtean ordaindu beharrekoa 5.021.500 euro izango da.

2020an zehar Sozietateak Bilbon Ekintzaitzari Laguntzeko Nazioarteko Zentroa ezartzen parte hartzea aurreikusita dauka, ekintzaitzaren euskal ekosistema indartzeko, baita Bizkaiko *startupe* zerbitzu berriak emateko ere, horrela nazioarte mailako finantziarioa, bizkortzea, kideak eta kontaktuak eskuratzen lagunduz. Sozietateak honela parte hartuko du: ekimen honen garapenerako beharrezkoak diren guneak (Bizkaia Dorrean daudenak) egokituz, eta gune horiek alokairu-erregimenean eskuragarri jarri.

Aipatutako elkartegiez gain, sozietateak beste eraikin batzuk ditu: "Centro de Tecnologías Aeronáuticas" izenekoa, Zamudioko Teknologia Parkean. Bilbon, Arana 8 eraikinean, B.E.A.Z. merkataritzako foru-sozietatea kokatzen da, eta Getxon, Biscaytik proiektuaren egoitza. Azken eraikin horretan dago izen bereko fundazioa, eta horren asmoa da Bizkaia erreferente bihurtzea, Administrazioan informazio arloko teknologien aplikazioari dagokionez.

1.b) Industriaren sektorerako lurzorua erosi eta sustatzea.

Lursailak erostea.-

Industriaren sektorerako lurzorua sustatu eta erostea, industria-poligonoak urbanizatu eta kudeatzea, eta jarduketak eta enpresak identifikatu eta aurkitzea gero kokatzeko, Sozietatearen xedean sartzen diren jarduketak dira.

2020 urtean zehar, egin diren kalkuluen arabera, tokiko hirigintzako plangintzarako beharrezkoak diren aldarazpenen sustapenean jarraituko da, zertarako-eta industri izaerako jarduketak sustatzeko eta garatzeko.

actuación, por encargo de Diputación Foral de Bizkaia, cuyo importe total ascenderá a 38.478.000 euros IVA incluido, con una anualidad prevista para el ejercicio 2020 de 5.021.500 euros.

Durante 2020 la Sociedad prevé participar en la implantación en Bilbao de un Centro Internacional de Apoyo al Emprendimiento, destinado a potenciar el ecosistema vasco de emprendimiento y a prestar nuevos servicios a las startups vizcaínas, facilitando su acceso a financiación, aceleración, partners y contactos a nivel internacional. Esta participación se concreta en la adecuación de los espacios requeridos para el desarrollo de esta actuación, situados en la Torre Bizkaia, así como la puesta a disposición de dichos espacios en régimen de arrendamiento.

Además, la Sociedad cuenta con otros inmuebles que albergan: el Centro de Tecnologías Aeronáuticas en el Parque Tecnológico de Zamudio; en Bilbao, en el Edificio Arana 8, se ubican las Sociedades Mercantiles Forales B.E.A.Z y Seed Capital; y en Getxo la sede del proyecto Biscaytik. Este último edificio, en el que se localiza la fundación del mismo nombre, pretende convertir a Bizkaia en referente de la aplicación de las tecnologías de la información en la Administración.

1.b) Promoción y adquisición de suelo para sector industrial

Adquisición de terrenos.-

La promoción y adquisición de suelo para el sector industrial, urbanización y gestión de polígonos industriales, y la identificación y localización de actuaciones y empresas para su ubicación, son actividades dimanantes del propio objeto social de la Sociedad.

Durante el año 2020 se prevé continuar con la promoción de las modificaciones necesarias en el planeamiento urbanístico local, a fin de promocionar y desarrollar actuaciones de carácter industrial.



Industria-sustapenak.-

Toki-erakundeekin lankidetzan, enplegua sortu eta eragiten duten jarduketak garatzen ditugu eta horiek industria-sektoreen garapena bultzatzen dute.

Azpiegiturak, SAMPk, halaber, jarduera ekonomikoko guneen tokiko kudeaketa eta garapena helburu soziala duten izaera publikoko bestelako sozietateetan parte hartzen du.

2. Gizarte-ekipamenduak eraiki eta kudeatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte-behar geroz eta ugariagoei erantzuna emateko ardura etengabea du eta, ondorioz, jarduketa-bolumena nabarmen igo da pertsona nagusiei arreta emateko eremuan. Eskari horri erantzuteko, AZPIEGITURAK sozietateak 963 eguneko zentroko plaza eta 1.669 egoitza-plaza ditu gaur egun, guztira 23 eguneko zentro eta 15 egoitzatan banatuta. Horietatik 785 eta 1.363 plaza zuzenean kudeatzen ditu eta batez besteko okupazioa %98 ingurukoa da.

Era berean, gizarte-azpiegituren eraikuntzari dagokionez, pertsona nagusientzako plazak dituzten eraikinen proiektua kudeatu du, eraikinak egin ditu eta ekipamenduz bete ditu; baina horretaz gain, AZPIEGITURAK sozietateak ezintasunen bat duten pertsonentzako eta beste talde batzuentzako egoitza eta eguneko zentroak egiteko proiektuak prestatu, eraikinak egin eta ekipamenduz bete ditu..

Sozietatean datorren ekitaldietarako aurreikusitako jarduketak hainbat kategoriatan sailka daitezke. Hona hemen horien laburpena:

A.- Gizarte-azpiegituretarako proiektuak idatzi, eraikinak egin eta ekipamenduz betetzea.

Sozietateak Gizarte Ekintza Sailaren aginduak

Promociones industriales.-

En colaboración con las entidades locales, desarrollamos actuaciones tractoras y generadoras de empleo, que culminan con el desarrollo de sectores industriales.

Azpiegiturak participa además en otras sociedades de carácter público, cuyo objeto social es la gestión y desarrollo local de zonas de actividad económica.

2. Construcción y gestión de equipamientos sociales

La constante preocupación de la Diputación Foral de Bizkaia por dar respuesta a las crecientes necesidades sociales del Territorio Histórico de Bizkaia, exige un volumen de actividad importante en el ámbito de la atención a Personas Mayores. Para dar respuesta a esta demanda, AZPIEGITURAK dispone en la actualidad de 963 plazas de centro de día y 1.669 plazas residenciales distribuidas en 23 centros de día y 15 residencias, de las cuales gestiona directamente 785 y 1.363 plazas, con un nivel de ocupación medio en torno al 98%.

Asimismo, en el campo de la edificación de infraestructuras sociales, además de gestionar el proyecto, construcción y equipamiento de las infraestructuras que albergan las plazas para personas mayores señaladas, AZPIEGITURAK ha realizado el proyecto, construcción y equipamiento de varias residencias y centros de día para personas con discapacidad y otros colectivos.

La actividad prevista de la Sociedad para los próximos ejercicios puede clasificarse en diferentes categorías, que se resumen como sigue:

A.- Encomiendas para proyectar, construir y equipar infraestructuras sociales

La Sociedad recibe encomiendas del Departamento



Azpiegiturak, S.A.M.P.

jasotzen ditu, gizarte-azpiegiturak eraiki edo/eta egokitzeko, bai pertsona nagusientzat, bai Sailaren jarduketa-eremuan sartzen diren beste talde batzuentzat.

A.1- Pertsona nagusientzako azpiegiturak.

Baliabideak pertsona nagusientzako arreta eskariari egokitzeko AZPIEGITURAK, SAMPk mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusiei zuzendutako ekipamenduak eraikitzeke aginduak jasotzen ditu.

Gaur egun, Bilboko Marcelino Oreja kaleko lokal batzuen birgaitze-lanak egiten ari dira, adinekoentzako eguneko zentroko 60 leku berri eskaintzeko; horietako 48 Azpiegiturak sozietateak kudeatuko ditu zuzenean. Ekipamendu honetako obren amaiera eta berau abian jartzea 2020an zehar gauzatuko da.

2019. urtea bukatu aurretik, belaunaldi-arteko egoitza bat eraikitzeke egin beharrekoak hastea pentsatua dago, Gizarte Ekintza Sailaren aginduz eta Getxoko Udalaren lankidetzarekin. Egoitza horretan, adinekoentzako 100 tokiz gain, gazteei zuzendutako berrogei apartamentu sozial egongo dira.

A.2. Beste azpiegitura batzuk

2020tik aurrera, Sozietateak aurreikusia du, Gizarte Ekintza Sailaren aginduz, Nagusi Intelligence Centerren eraikuntzan parte hartzea; adinekoen premiei erantzuna emateko zentroa izango da, eta zahartzearen erronka aukera bihurtzea du helburu, jarduera eta enplegu arlo berri bat garatzeko.

B.- Ustiapena:

B.1.- Besteren laguntza behar duten pertsona nagusientzako gizarte-azpiegiturak ustiatzea.

Sozietateak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte

de Acción Social para edificar y/o acondicionar infraestructuras sociales, destinadas tanto a personas mayores como a diversos colectivos dentro del ámbito de actuación del Departamento.

A.1- Infraestructuras para Personas Mayores

Con el objetivo de adecuar los recursos a la demanda de atención a personas mayores, AZPIEGITURAK recibe encomiendas para la construcción de equipamientos destinados a personas mayores en situación de dependencia.

Actualmente se encuentran en ejecución las obras de rehabilitación de unos locales en la calle Marcelino Oreja de Bilbao, destinados a ofrecer 60 nuevas plazas de centro de día para personas mayores, de las cuales 48 estarán gestionadas directamente por Azpiegiturak. La finalización de las obras y puesta en marcha de este equipamiento se realizará a lo largo de 2020.

Antes de la finalización de 2019 se espera iniciar las actuaciones, por encargo del Departamento de Acción Social y en colaboración con el Ayuntamiento de Getxo, para la construcción de una residencia intergeneracional, en la que convivirán 100 plazas de residencia para personas mayores y cuarenta apartamentos sociales destinados a jóvenes.

A.2. Otras infraestructuras

La Sociedad prevé participar a partir de 2020, por encargo del Departamento de Acción Social, en la construcción del Nagusi Intelligence Center, un centro destinado a dar respuesta a las necesidades de las personas mayores y que pretende convertir el reto del envejecimiento en una oportunidad para desarrollar un nuevo sector de actividad y empleo.

B.- Explotación

B.1.- Explotación de infraestructuras sociales para Personas Mayores Asistidas.

La Sociedad realiza, a encomienda del



Ekintza Sailak eskatuta, besteren laguntza behar duten pertsonen eguneko zentroetan eta egoitzetan plazak kudeatzeko zerbitzuak ematen ditu, enpresa espezializatuei zerbitzua esleituta. Egun kudeatutako plazak eta plaza berrien aurreikuspena honako hauek dira:

B.1.1- Pertsona nagusientzako eguneko zentroen ustiapena.

2020. urtean, eguneko zentro hauek ustiatzen jarraitu nahi da:

- Leioa, San Adrián, Sestao Berria , Galdakao, Otxarkoaga, Ugao – Miraballes, Santutxu, Abanto-Zierbena, Bilbao-Isozaki Atea, Aiboa-Getxo, Ormabarrieta-Bermeo, Ondarroa y Etxebarri.

Halaber, ekitaldian Bilboko Marcelino Oreja kalean kokatutako Etxaniz eguneko zentro berriaren ustiapena hasiko da.

B.1.2.- Pertsona nagusientzako egoitzen eta eguneko zentrodun egoitzen ustiapena.

2020. urtean, egoitza eta eguneko zentrodun egoitza hauek ustiatuko dira:

- Sondikako egoitza, Muskizko egoitza , Sestaoko egoitza, Amorebieta-Etxanoko egoitza.

Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la prestación de servicios de gestión de plazas de centros de día y residencias para personas mayores asistidas, mediante la adjudicación del servicio a empresas especializadas. Las plazas gestionadas en la actualidad y la previsión de nuevas plazas se detallan a continuación:

B.1.1- Explotación de Centros de Día para Personas Mayores.

Durante 2020 se prevé continuar la explotación de los siguientes Centros de Día:

- Leioa, San Adrián, Sestao Berria , Galdakao, Otxarkoaga, Ugao – Miraballes, Santutxu, Abanto y Zierbena, Bilbao-Isozaki Atea, Aiboa-Getxo, Ormabarrieta-Bermeo Ondarroa y Etxebarri.

Además durante el ejercicio se iniciará la explotación del nuevo centro de día Etxaniz situado en la calle Marcelino Oreja de Bilbao.

B.1.2.- Explotación de Residencias y Residencias con Centro de Día para Personas Mayores.

Durante 2020 estarán en explotación las siguientes Residencias y Residencias con Centro de Día:

- Residencia en Sondika, Residencia en Muskiz, Residencia en Sestao, Residencia en Amorebieta.



- Eguneko zentrodun egoitza Durangon, eguneko zentrodun egoitza Txurdinagan - Bilbo, eguneko zentrodun egoitza Basaurin, eguneko zentrodun egoitza Ortuellan , eguneko zentrodun egoitza Zamudion , eguneko zentrodun egoitza Rekalden, eguneko zentrodun egoitza Ermuan, eguneko zentrodun egoitza Balmasedan, eguneko zentrodun egoitza Arrigorriagan, eguneko zentrodun egoitza Bilbo Zaharrear, eta eguneko zentrodun egoitza Zorrozan.
- Residencia con Centro de Día en Durango, Residencia con Centro de Día en Txurdinaga-Bilbao, Residencia con Centro de Día en Basauri, Residencia con Centro de Día en Ortuella, Residencia con Centro de Día en Zamudio, Residencia con Centro de Día en Rekalde, Residencia con Centro de Día en Ermua, Residencia con Centro de Día en Balmaseda, Residencia con Centro de Día en Arrigorriaga, Residencia con Centro de Día en Bilbao La Vieja, y Residencia con Centro de Día en Zorroza.

B.1.3.- Hitzarmen Markoak

2014ko irailean Gizarte Ekintza Sailarekin hitzarmen markoa sinatu zen, Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Planeko etxebizitzak (Bizkaiko hainbat udalerritan) doan lagatzeko asmoz helburu sozialetarako.

Hitzarmen marko honen barruan, Azpiegiturak, SAMPk Gueñesen kokaturiko 5 etxebizitza laga zituen, minusbalotasuna duten pertsonen zuzenduta.

3. Kirol-azpiegiturak eraiki eta kudeatzea.

Sozietateak, bere ondarean, bi kirol instalazio ditu eta horien kudeaketa ustiapen horietan espezializatuak diren izaki pribatuekiko kontratuen bidez egiten da. 2020an jarduera horiekin jarraitzea aurreikusi da, ondoko xehetasun hauen arabera:

- Pilotalekuen eraikina eta Kirol Etxea: Instalazio hau 2011 urtetik abian dago, eta bertan pilotaren arloan oso garrantzitsuak diren ekitaldiak egin dira. 2020 urterako, aurreko ekitaldietan bezala, jardueren egutegi garrantzitsua aurreikusi da, Bizkaian pilotaren arloa berpizteko balioko dutenak. Eraikinean, halaber, Bizkaiko kirol federazioetako askoren egoitzak daude.

B.1.3.- Convenios Marco

En septiembre de 2014 fue suscrito, con el Departamento de Acción Social, un Convenio Marco por el que regula la cesión gratuita de viviendas del Plan Foral de Actuación en Vivienda, ubicadas en diferentes municipios de Bizkaia, con destino a su uso con fines sociales.

Dentro de este acuerdo marco, Azpiegiturak mantiene cedidas 5 viviendas ubicadas en Güeñes, destinadas a personas con discapacidad.

3. Construcción y gestión de infraestructuras deportivas

La Sociedad tiene en su patrimonio dos instalaciones deportivas cuya gestión realiza a través de contratos con entidades privadas especializadas en su explotación. Durante 2020 se prevé continuar dicha actividad, según se detalla a continuación:

- Edificio de frontones y Kirol Etxea: Esta instalación, en funcionamiento desde 2011, ha acogido eventos de gran importancia en el mundo de la pelota. Para 2020 está previsto, como en los ejercicios anteriores, un importante calendario de actividades, que revitalizarán el deporte de la pelota en Bizkaia. El edificio alberga también las sedes de un elevado número de federaciones deportivas bizkainas.



- Meaztegi Golf: 2019ko agintaldian beste enpresa espezializatu bati esleitu zaio sozietateak Zugaztietan duen golf-zelaiaren kudeaketa, lau urterako, beste urte batez luzatzeko aukerarekin. Aldi horretan, Meaztegi Golf sendotu nahi da kirol horren jardunean erreferente gisa, eta gazteengan kirol hori sustatu ere bai; horretarako, zenbait inbertsio egitea pentsatua dago, golfa praktikatzeko baldintzak hobetzeko.
- Meaztegi Golf: Durante el ejercicio 2019 se ha adjudicado a una nueva empresa especializada la gestión del campo de golf que la sociedad tiene en La Arboleda, por un periodo de cuatro años prorrogable en uno más. En este periodo se pretende consolidar Meaztegi Golf como un referente en la práctica de este deporte, y potenciar la práctica del mismo entre los más jóvenes, para lo que está previsto realizar determinadas inversiones destinadas a la mejora de las condiciones para la práctica del golf por parte de los usuarios.

4. Etxebizitza

Sozietateak gogor jardun du azken urteetan etxebizitzaren sustapenean; guztira, zuzenean 811 etxebizitza saldu ditu, eta beste 240 kooperatiben bitartez. Jardun hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalen lankidetzaz egin da.

Egungo egoera ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, eta alokairuzko etxebizitzak duen eskaria ikusita, etxebizitzak erosteko aukeradun errentamendu modalitatearen bidez eskuratzeko aukera sortuko da.

Azpiegiturak sozietateak, egun, 147 etxebizitza dauzka alokatuta, zuzenean zein Alokabiderek sinatutako hitzarmenaren bitartez. Gehienak erosteko aukeradun alokairu kontratuak dira eta Bizkaiko geografiako zenbait udalerritan banatuta daude. Horrela etxebizitza bila dauden lagunen beharrei erantzuten zaie.

Sozietateak Amorebietako Betarragane auzoan kooperatiba erregimenean egin den 80 etxebizitzaren sustapenean parte hartu du; guztiak entregatu dira, eta, 2020an zehar, formula berarekin eta inguru berean 95 etxebizitzaren sustapenari ekin nahi zaio.

4. Vivienda

La Sociedad ha desarrollado en los últimos años una intensa actividad en la promoción de vivienda, con un total de 811 viviendas vendidas de forma directa y otras 240 viviendas vendidas a través de cooperativas. Esta actividad se realiza en colaboración con los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.

Dada la actual realidad económica y social y a la vista de la demanda de vivienda en alquiler, se posibilita también el acceso a las viviendas mediante la modalidad de arrendamiento con opción de compra.

Azpiegiturak dispone actualmente de un total de 147 viviendas arrendadas, de forma directa o a través de convenio firmado con Alokabide. Son en su mayor parte arrendamientos con opción de compra, y las viviendas se hallan distribuidas en diversos municipios de la geografía bizkaína, atendiendo así las necesidades de las personas en busca de vivienda.

La Sociedad ha participado en la promoción en régimen de cooperativa de 80 viviendas en el barrio Betarragane de Amorebieta, cuya entrega ya se ha producido en su totalidad, y espera iniciar durante 2020 mediante la misma fórmula la promoción de 95 viviendas adicionales en el mismo ámbito.



2018an zehar, Erandion 115 etxebizitza eta 8 merkataritza-lokal eraisteko, eraikitze eta merkaturatzeko proiektua abiatu zen. Aurreikusita dago eraikuntza-lanak 2020an zehar bukatzea, eta etxebizitzak eta lokalak urte horren amaiera baino lehen entregatzea. Merkaturatze fasea 2018an hasi zen, eta, gaur egun, salgai jarritako etxebizitza guztiek dute eroslea.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, EUDELe, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak "Familia-etxebizitzetako kaleratzeak direla-eta, ahultasun egoerak hautemateari buruzko lankidetzak hitzarmena, gizarte-izaerako neurriak hartzeko" delako hitzarmena, "Etxegabetze kasuetarako jarduera protokoloa" izenez ere ezaguna, sinatu zuen. Hori kontuan hartuta, Lurralde Historikoko udalerrien eskura jarri da Sozietateak egun duen etxebizitza-parkea.

Beste jarduketak batzuk.

Sozietateak Ugaldebietako zerbitzugunea ustiatzen jarraitzen du. Zerbitzu-estazio bat du A-8 autobidearen alde banatan, Abanto udalerrian.

Bestalde, Busturialdeko suhultzaile parke berria eraikitze aurreikusita dago, Arratzuko udalerrian, egun Gernikan kokatuta dagoena ordezkatzuz. Lanak 2019. ekitaldian hasiko direla aurreikusten da 6.000.000 euro inguruko inbertsioa gauzatzuz.

Kapitalaren aurrekontua.

Ibilgetu materialean 2020 ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak, higiezinetak inbertsioak barne, hurrengoak dira:

Durante 2018 se inició el desarrollo del proyecto de derribo, construcción y posterior comercialización de 115 viviendas y 8 locales comerciales en la localidad de Erandio. Se prevé que las obras de construcción finalizarán durante 2020, realizándose las entregas de las viviendas y locales antes de la finalización de ese año. La fase de comercialización comenzó en 2018 y actualmente todas las viviendas puestas a la venta tienen comprador.

Por otro lado, y en base al "Convenio de colaboración sobre detección de supuestos de vulnerabilidad con ocasión del lanzamiento de vivienda familiar para posibilitar la adopción de medidas de carácter social", también denominado "protocolo de actuación en caso de desahucio", firmado por el Gobierno Vasco, EUDEL y el Consejo General del Poder Judicial, al que se adhirió la Diputación Foral de Bizkaia, se ha puesto a disposición de los municipios del Territorio Histórico el parque de viviendas con el que actualmente cuenta la Sociedad.

Otras Actuaciones

La Sociedad mantiene la explotación del área de servicio de Ugaldebietak, que cuenta con una estación de servicio a cada lado de la autovía A-8 en el término municipal de Abanto.

Por otro lado, se prevé realizar la construcción de un nuevo parque de bomberos de Busturialdea, en la localidad de Arratzu, en razón de la desaparición del actual parque sito en Gernika. Está previsto que las obras se inicien en el ejercicio 2019, con una inversión total aproximada de 6.000.000 euros.

Presupuesto de capital

Las inversiones previstas en el inmovilizado material, incluidas inversiones inmobiliarias, para el ejercicio 2020 son las siguientes:



Txostena Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Azpiegiturak, S.A.M.P.

- Bilboko Ekintzailletza Zentroa	1.250.000 €	- Centro Emprendimiento Bilbao	1.250.000€
- Meaztegi Golf	630.000 €	- Meaztegi Golf	630.000€
- El Karpin	450.000 €	- El Karpin	450.000€
- Elkartegietan hobekuntzak	1.275.000 €	- Mejoras Elkartegiak	1.275.000€
- Garraiorako elementuak eskuratzea	30.000 €	- Adquisición elementos transporte	30.000€
- Ekipamendu informatikoak eskuratzea	15.000 €	- Adquisición equipos informáticos	15.000€

Inbertsio horien finantzaketa akziodun bakarraren kapital gehikuntza bidez egitea pentsatu da.

Se ha previsto financiar dichas inversiones mediante ampliación de capital procedente del accionista único.

Taldeko enpresei egindako inbertsioei buruz, 2020an 545.000 euro ordaintzea aurreikusi da, kapital hazkuntzak sinatzeko.

En lo que respecta a inversiones en empresas del grupo, se ha previsto el desembolso de 545.000 euros en 2020 para la suscripción de ampliaciones de capital.

2020ko abenduaren 31rako aurreikusitako epe luzerako zorpetzearen zertarakoa honako hau da:

El destino de los préstamos a largo plazo previsto al 31 de diciembre de 2020 es el siguiente:

• Pertsona nagusien ekipamenduetarako finantziazioa:	22.332.692 €	• Financiación Equipamientos personas mayores:	22.332.692 €
• Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Plana:	10.000.000 €	• Financiación obras a largo plazo del Plan Foral de Vivienda:	10.000.000 €
• Industria azpiegituren finantziazioa:	4.620.000 €	• Financiación infraestructuras industriales:	4.620.000€
• Epe luzerako zorrak, guztira, kreditu-erakundeekin:	36.952.692 €	• Total Deudas largo plazo con entidades de crédito:	36.952.692€

Epe laburrera birsailkatua
2020.12.31n: 5.736.603 €

Reclasificado a corto plazo el
31.12.2020: 5.736.603€

Epe luzera birsailkatua
2020.12.31n: 31.216.090 €

Reclasificado a largo plazo el
31.12.2020:- 31.216.090€